

## 13. GATAZKAK

gatazkak

gatazkak epaitegian

judizioa



13. ikastunitatea

Justiziaren egiteko nagusietako bat gizartean sortzen diren gatazkei konponbidea bilatzea da. Horretarako, prozedura eta bide hainbat baliatzen ditu.

## gatazkak

Gatazkak eguneroko bizitzaren arlo guztietan ematen dira (lanean, familian, bizilagunen artean, zerbitzu-enpresa eta bezeroen artean...); arlo guztietan, haatik, ez dira berdin konpondu edota bideratzen.

- Ekar ezazu gogora bizi izan duzun edo ezagutu duzun azken gatazka. Jarri taldeka eta eman bakoitzak zeuon gatazkaren berri.

1. Zer gertatu zen?
2. Nola konpondu zenuten/zuten?
3. Auzitara jo behar izan zuten ala bestelako irtenbidea topatu zuten?

- Irakasleak talde bakoitzari beheko testuetako bat esleituko dizue<sup>1</sup>. Kasu guztiak auzitan ebatzi behar izan ziren, baina, beharbada, bitartekaritza egoki baten bidez, konponduko ziren bestela ere. Aztertu eta pentsatu nola konpon zezaketen arazoa auzitara jo gabe eta aurreikusitako, era berean, auzitegian zein irtenbide emango zieten.

1

Bikote batek mendate bateko jatetxe batekin hitzartu zuen ezkontza-otordua, baina gauzak ez ziren pentsatutako moduan atera. Jatetxea argindarrik gabe geratu zen ekaitzaren eraginez, eta hiru orduz atzeratu zen ezkontzako bazkaria. Ezkonberriek uko egin zioten oturuntza ordaintzeari, eta jatetxeak salaketa jarri zuen. Jatetxeak faktura ordaintzea eskatzen zuen eta ezkonberriek, osterara, kalte-ordaina, kalte morala jasan zutelakoan.

2

Eski-pista gorri batean (eskarmetuko eskiatzailentzat prestaturikoan) behera zetorren eskiatzaile bat bere bidetik atera zen, haur batzuk ez harrapatzearen, eta bere aurretik zihoan emakumea jo zuen. Biktimak hainbat hilabetez bajaran egon behar izan zuen izandako kalte fisiko-engatik, eta horrek galera ekonomikoa eragin zion. Horren ordaina eskatzen dio kolpea eman zionari, nahiz eta ondo dakien, berez, hurrek eragin zutela istripua.

3

Etxebizitza baten jabeak arrisku anitzen aurkako aseguru bat kontratatu zuen, besteak beste, hirugarrenen aurrean zuen erantzukizun zibila babesten zuena. Polizaren klausula murriztaileak jarraituz, ordea, ez ziren "hirugarren" gisa hartuko aseguru-hartzailearen eta aseguratuaren ezkontide, aurreko eta ondorengoak, eta, ondorioz, ez zuten asegurua kontura kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Etxebizitzan izan zen sute baten ondorioz, jabearen amaginarreba hil egin zen. Haren emazteak erantzukizun zibilatiko kalte-ordaina eskatu zion aseguru-etxeari. Aseguru-etxeak uko egiten zion ordaintzeari, asegurua hartzailearen eta aseguratuaren aurreko eta ondorengo familia ez zituela "hirugarren" gisa hartuko zioen klausulari jarraituz.

4

Trafiko-istripu bateko biktimak akordio bat sinatu zuen istripua eragin zuenaren aseguru-konpainiarekin, jasandako lesioen senda-agiria jaso ondoren. Akordio horren arabera, aseguru-etxeak kalte-ordaina emango zion kaltetuari eta trukean kaltetuak uko egingo zion istripuaren errudunaren edo haren aseguru-etxearen kontrako neurriak hartzeari. Geroago, biktimak, lesioak larriagotu egin zirela eta, kalte-ordain handiagoa eskatu zuen.








- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....

- Kasu hauetan zer ebatzi zen zehazki jakin nahi izanez gero, eskatu horren berri ematen duten albiste testuak irakasleari. Irakurri bana eta eman elkarri dioenaren berri.

1. Bat datoz epaiak zeuek aurreikusitakoarekin?
2. Zuek auzitara jo gabe proposatu duzuen konponbidea egokiagoa ala okerragoa zen? Norentzat? Zein neurritan?

gatazkak epaitegian

- Bideo-pasarte bat ikusiko duzu jarraian<sup>2</sup>. Zer gertatzen da pasadizo horretan?
- Dakigunez, auzitegietan gatazkak ebazteko prozedura finko bat dago. Prozedura hori salaketa<sup>3</sup> jartzearekin hasten da, baina horren atzean beste batzuk datoz: zeintzuk? Horixe da zuen egitekoa: testu guztiak irakurri ondoren, eta kokatu bakoitza dagokion lekuan. Kontuz, horietako lau testu lau geiztan kokatu behar dira eta!



## gatazkak epaitegian

<b>Beste judizio bat Probintzia Auzitegia</b>  Apelazioa	<b>Apelaziorik ez</b>  <b>Apelazioa</b>	Enbargoak Gida-baimenaren atxikipena Kondenen kontrola
<b>Apelazioa</b>	Instrukzioa  <b>Txandako epaitegia</b> Prozeduraren instrukzioa	<b>Guardiako epaitegia</b>
<b>Apelaziorik ez</b>		Judizioa
<b>Beste judizio bat Probintzia Auzitegia</b>  Apelazioa	<b>Zigor-arloko epaitegia</b>	<b>Artxibatzea, fiskalaren txostena ikusi ondoren</b>

- Elkar zaitetz ikaskideekin eta alderatu egindako lana. Bat etorri al zarete emandako ordenan? Ondoren, talde bakoitzak bere ordena aurkeztu eta arrazoituko dio ikastaldeari.

## judizioa

- Auzitegietan gatazkak ebazteko erabiltzen den prozeduraren gune nagusia judizioa egitea da. Sekula parte hartu al duzu judizio batean? Zein izan zen zure eginkizuna?



- Judizio batean parte hartzen dutenen zerrenda eta horien eginkizunak dituzu hemen. Zein eginkizun dagokio nori?

A

Judizioan, aretoa zaintzeko eta zainarazteko eginkizuna du. Epaileari eta idazkariari laguntzen die, hauek eskatzen dioten guztian: aretorako deiak entzunaldi publikorako, judizioko parte-hartzaileak eta publikoko jendea antolatzea, judizioko aktaren kopia banatzea, etab.

B

Epaitegiei laguntza teknikoa ematen die, bere jakintzagai profesionalen inguruan.

- Auzitegiko medikuak
- Psikologoak
- Psikiatrak
- Kaligrafoak
- Ibilgailu-tasatzaileak
- Arkitektoak, etab.

C

Judizioko alderdiek, akusatuak nahiz akusatzai-leak, beharrezko iruditzen zaizkion \_\_\_\_\_ guztiak dei ditzala eskatu ahal izango diote epaitegiari; \_\_\_\_\_ek prozeduran deklaratuko dute ezagutu edo ikusi dituzten gertakariei buruz, akusazioen defentsan edo haien deklarazioak berretsiz. Epailleak zititzen ditu lekukoak, eta agertu ezean legeak ezartzen dituen ohartarazpenak ematen dizkie aditzera. Egia esateko obligazioa dute, eta, bestela, lekukotza faltsuaren delitua egingo dute.

D

Epaitzen diren delituak egin, estali edo egiten lagundu izana egozten zaion pertsona da.

E

Zuzenbidean lizentziatua izaten da, eta deman-  
datuaren edo akusatuaren zuzendaritzan eta  
defentsan jarduten du era guztietako prozesue-  
tan; halaber, aholku eta gomendio juridikoak ere  
ematen ditu.

F

Zuzenbidean lizentziatua izaten da, eta deman-  
datzailearen zuzendaritzan eta defentsan jarduten  
du era guztietako prozesuetan; halaber, aholku  
eta gomendio juridikoak ere ematen ditu.  
Beren eginkizunetan, askeak eta independenteak  
dira, fede onaren printzipioari lotzen zaizkio,  
sekretua gorde behar dute beren jardun profe-  
sionala dela-eta ezagutzen dituzten egitate eta  
berri guztiei buruz (sekretu profesionala), eta ezin  
daitezke behartuak izan horiei buruz deklaratzera.

G


Justiziaren lana sustatu behar du, legezkotasuna, herritarren eskubideak, eta legeek babestutako interes publikoa defenda daitezten; ofizioz edo interesatuek eskatuta gauza dezake fiskalak eginkizun hori. Era berean, auzitegien independentzia berma dadila eta auzitegietan gizartearen nahia bete dadila zaindu behar du.

H

Ekitaldi judizialen fede publikoa ematen du, eta epaileari haren eginkizunetan laguntzen dio. Judizioan akta egiten du eta gertatutako guztiaren fede ematen du. \_\_\_\_\_ judizialen kidegoan sartzeko, Zuzenbidean lizentziaduna izan behar da.

I

Judizioan aurkeztutako froga guztiak aztertu ondoren, ebazpena ematen du eta ebatzitakoa betearazteaz arduratzen da.



- Asko dira sekula justiziarekin hartu-emanik izan ez duten herritarrak. Askorentzat, gainera, arrotz samar suertatzen da alor horretako hizkera. Jarraian duzu ahozko judizioaren garapenaren azalpen laburra. Taldeka jarri eta aztertu testua.

1. Argi ulertuko al luke herritar batek zer den judizioa?
2. Zer aldatuko zenukete ulerterrazago egiteko?



#### Ahozko judizioaren garapenaren azalpen laburra<sup>5</sup>

Epaile eskudunak, proposatu dizkieten froga guztiak aztertzen dituenean, autoa emango du, egokitzat jotzen dituenak onartuz eta gainerakoak baztertuz, eta epaiketarako eguna eta ordua finkatuko ditu. Frogak egingo direla segurtatzeko, beharrezko komunikazioak bidaliko dira.

Epaiketa ondo egin dadin, bertan egon behar dute akusatuak eta abokatu defendatzaileak. Hala ere, akusatu bat baino gehiago badago, eta horietakoren bat bidezko arrazoirik eman gabe ez baldin bada agertzen, gainerakoekin jarraitzea erabaki ahal izango du epaileak, alderdiei entzun ostean.

Idazkariak akusazioaren eta defentsaren idazkiak irakurriz ekingo dio epaiketari.

Jarraian, esku hartzeko txanda irekiko du epaileak, alderdiek egoki deritzotena azal dezaten. Erabakitako frogak egikarituko dira, bata bestearen segidan, eta epaileak, beharrezkotzat joz gero, saioa eten edo atzeratu ahal izango du.

Froga horiek egin ondoren, aurkeztutako idazkietako konklusioak berretsi ala aldatu egiten dituzten galde-tuko die epaileak akusazioari eta defentsari, hots, akusatuarentzat eskatutako zigorrak mantendu ala aldatu nahi dituzten.

Defentsaren eta akusatzailearen abokatuei eta fiskalari entzun ostean, idazkariak epaiketaren akta egingo du, eta epaileak, idazkariak, fiskalak eta akusazioaren eta defentsaren abokatuek sinatu egingo dute. Akta horretan, egindako frogak, epaiketako gorabeherak, egindako erreklamazioak eta hartutako ebazpenak jasotzen dira.

Ahozko judizioa amaitu eta hurrengo 5 egunen barruan emango du epaileak epaia.

- Aurkeztu eta baloratu taldean egin duzuen lana.

1. Zer-nolako aldaketak egin dituzue?
2. Zertan datza testuen zailtasuna?
3. Horren garrantzitsua al da testuak ulerterrazago egitea?

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

